



Juanan RUIZ eta Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

LARDERIAREN OLATUA URRATZEKO, HITZA ETA ARRAUNA

Goierriko, Debagoieneko eta Ispasterko herritarrek bezala, joan den udan hitz egin zuten azeptiarrek. Aste honetan, gainera, lekukoa pasatu diete Urola Kostako gainontzeko herritarrei, eurek ere beren borondatea azalaraz dezaten, datorren udaberrian. Ez da batere zaila, hautestontzia eta hitza besterik ez direla behar

esango luke herritarren borondatea bete beharra dagoela uste duen edonork. Baina hitza ez da nahikoa. Ez, behinik behin, hainbeste herri mendean izan dituenarentzat. Behin eta berriz baztertu du hitza; behin eta berriz joan zaizkio mendetik herriak. Hitza ez da nahikoa, esate baterako, itsasoko olatuak urratzeko. Itsasoak hitz egiten du, baina ez daki zer diren marinelen erabakiak. Oartzualdean ere hitz egingo dute datorren martxoan, eta eskualdeko arraunlariek hitza hartzeko deia egin berri dute. Eta hitza ez dela nahikoa ere adierazi dute, boga ere egin beharra dagoela larderiaren olatuak urratzeko. Xabier Izaga Gonzalez